

LEZO / Irakurketa klubaren urteko lehen solasaldi literarioa astelehenean

Euskarazko Irakurketa Klubaren solasaldi literarioa izango da otsailaren 25ean, astelehenarekin, 18:30ean, udal liburutegian. Euskarazko lehen solasaldira gerturatzen direnek Garazi Kamioren 'Beste norbaiten zapatak' lanean kontatzen diren ipuinak izango dituzte hizpide.

Udal Liburutegiko Euskarazko Irakurketa Klubaren hurrengo saio literarioa apirilaren 29an izango da, hain zuzen ere, Bernardo Atxegaren 'Zazpi etxe Frantzian' obrari buruz arituko dira saiora gerturatzen direnak. Irakurketa saioan parte hartu nahi dutenek apirilaren 8tik 12ra bitartean izango dute liburua jasotzeko liburutegian.

Gazteleraz

Martxoan izango da gaztelerazko Irakurketa Klubaren urteko bigarren saioa. Ian McEwan idazlearen 'Solar' (2010, Anagrama 2011) liburua izango da hizpide martxoaren 26an, asteartean, izango den saioan. Liburua martxoaren 4tik 8ra bitartean jaso ahalko da.